




<b>adabegi</b> 'adarbegia, adarrondoa'	«Oñaztar gazte zainbihurria ez ezik, Jaun Petri Urtiz ere ohartu zen (...) Abendañotarren aizkorak topatu zuen <b>adabegi</b> desegokiaz.»	(193)
<b>adatsa urdindu</b> 'adinagatik ilea kolorgetu'	«Berrogeita bost urtetsu zituen eta <b>adatsa</b> sobera <b>urdintzen</b> hasia, beharbada (...) bere izakera zainbizi eta sukorrak eraginda.»	(183)
<b>adimin</b> 'zelatan bezala, jakinminez'	«...jakingurak hazkura eraginik, lotara joan beharrean, ate gibelean gelditu zen <b>adimin</b> .»	(211)
<b>aditzea izan</b> 'entzuetetik jakin edo ezagutu'	«— <b>Aditzea dudanez</b> , berak hil erazi omen zuen Azeari Landetako bizkarretik.»	(322)
<b>agindunahi</b> 'agintaria,aginduak eman zalea'	«Hau ez baitzen batere <b>agindunahia</b> eta otxan-otxan makurtu zitzaion bere amonari.»	(46)
<b>agintari</b> 'aginduak eman zalea'	«Andre Mari Urtiz aiurriz latza zen eta <b>agintaria</b> biziki.»	(29)
<b>ahoragarri</b> 'gustagarria'	«Olasoko etxeoandreak janaririk zaporetsuenak eta <b>ahoragarrienak</b> atera zituen, edaririk gurienez lagundurik...»	(27)
<b>aienatu</b> 'uxatu, aldendu'	«...zurbil, margul eta mutu gelditu zen, bizia gorputzetik <b>aienatu</b> balitzaio bezala...»	(220)
<b>aihetz</b> 'aihotza, ganibet handia'	«...eta hau esanaz, gerritik zintzilik zeraman <b>aihetz</b> bat eskuratu zion.»	(115)
<b>aitatzulo</b> 'aitazuloa, aita oso maite duena'	«Hiru alabak <b>aitatzulo</b> bilakatu ziren eta Matxin, berriz, amatxulo.»	(156)
<b>aitatzako</b> 'aitordea'	«Ikas ezan hire anaia nagusi eta <b>aitatzakoa</b> denari begirunea edukitzen.»	(337)
<b>aitzi</b> 'aurka'	«...baina Otxoak, bidez edo bidegabe (...) bazizun aitaren <b>aitzi</b> errebelatzeko eragingarri bat...»	(264)
<b>aiurri</b> 'izaera, nortasuna'	«Andre Mari Urtiz <b>aiurriz</b> latza zen eta agintaria biziki.»	(29)
<b>akiakula</b> 'aitzakia'	«Beren buruei sendo erizten zienean, edozein aitzakia edo <b>akiakula</b> aski izaten zuten etsaiaren gainera ustekabean erortzeko.»	(119)
<b>alaena</b> 'halakoa'	«Aurpegiak salatzen hau, hire usakume aurpegiak hain zuzen ere, <b>iturati</b> alaena!»	(93)
<b>alazan</b> 'gorria, kanela kolorekoa'	« <b>Alazan</b> koloreko bere zaldi lirain eta bikainean zihoalarik, haizeak leunki zerabilkion ertze gorritz apaindutako kapa sendoa.»	(30)
<b>amilka erori</b> 'bilin-bolaka, iraulka jausi'	«Areago: gezi edenduek ez zuten ikutu ere egin, bere etsaiek hala uste izanarren <b>amilka</b> erortzen ikusi zutenean.»	(232)
<b>antxintxika</b> 'lasterka, korrika'	«...hura Mondragoera iritsi baino lehen, bagoazke denok <b>antxintxika</b> , bi su artean sakailduak izan gura ez badugu...»	(278)
<b>antze</b> 'trebea, jaioa'	«...Jaun Gomiz, ostera, indartsu izateaz gainera, maltzurkeria, legunkeria eta nahastakeria <b>antzeetan</b> maisu zen...»	(112)
<b>antzi egin</b> 'hasperena egin'	«—Nork daki Jaun Matxin Ganboakoaren bitartez barkamenik iritsiko ote genukeen! — <b>antzi</b> egin zuen Joanikotek errukarri.»	(311)
<b>apentza</b> 'mendekua'	«Halakoxea izanen da Butroeren <b>apentza</b> ! Harririk ez harri gainean!»	(127)
<b>apeta</b> 'kapritxoa'	«...kunplimentu eta opaespen klase guztiak izan zituen berarekin (...) Jaun Matxinen gurari eta <b>apeta</b> guztiak mukuru bete araziz.»	(100)
<b>aratz</b> 'garbia'	«Ene hitzak elur malutak bezain <b>aratzak</b> izanen dira.»	(215)
<b>arba</b> 'abar xehea, palua'	«...oinazetan lehertzen hasitako <b>arba</b> kimu samurrak etengabe eta oldartsu hazten ari ziren bizibeharraren kemenak eraginda.»	(265)




<b>arranbel</b> 'arkua'	«...zuzi irazekiek —guztiz ere <b>arranbelen</b> eraginez jaurtikiak—, (...) leihoetan sartuz bete ohi zuten beren egitekoa.»	(302)
<b>arranditsu</b> 'harro'	«...arnasa lasai hartu zuen Jaun Txeru Belez bere gudariekin hirian <b>arranditsu</b> sartzen ikusi zuenean...»	(240)
<b>arre</b> 'iluna, kolorgea'	«...Jaun Petri Urtizi biderik bihurrienak eta <b>arreenak</b> zilegi zitzaizkiola bere handigoseak agindutako helburura iristeko.»	(223)
<b>aspilera</b> 'leiho gisako begiratokia'	«...leiho luze-estuekin konbinaturik, <b>aspilerak</b> eta tronera zituen txairoki sakabanatuta.»	(252)
<b>atotsi</b> 'hartu'	«...emakume ezkonduak oro kalean, edo etxean, arrotzik <b>atotsi</b> behar bazuten, buru-janzkiren bat gabe ez baitzitezkeen ager...»	(96)
<b>atzendu</b> 'ahantzi, ahaztu'	«...ederki mintzatu zen euskaraz hamar-hamabi urtetara arte. Gero (...) baldartu egin zen, baina ez zitzaion erabat <b>atzendu</b> sekula.»	(72)
<b>atzipetu</b> 'iruzur egin, ziria sartu'	«Baina Eneko Kanpain <b>atzipetua</b> izan zen, zeren (...) surtatik atera ziren zaldunen artean ez baitzegoen Jaun Gomiz Butroeko.»	(307)
<b>ausiabantza</b> 'hondamena/nahastea, korapiloa'	«Aldi hartako bertsolari batek (...) honela kantatu zuen Ahaide Nagusiaren <b>ausiabantza...</b> »	(168)
<b>auzi-mauzi</b> 'gatazka, eztabaida, nahastea'	«...mintzagaia (...) laster asko pipertu zen (...) <b>auzi-mauziak</b> eta herriko eskandalurik nabarmenenak gozaro lardaskatuz...»	(30)
<b>axanpa</b> 'ardura, larritasuna'	«Domikuk agindu zion (...) beren mendekua jausten zen unetik, kezka eta <b>axanpa</b> guztiak aienatuko zitzaizkiola.»	(222)
<b>axut egin</b> 'errorra jo, ahaikatu'	«—Hain zuzen ere, horregatik ez dut ezpata zorrotik atera <b>axut egiteko.</b> »	(50)
<b>azkon</b> 'eskuz botatzeko gezi txikia'	«Butroetarrek, beren luebaki eta oholesietatik, <b>azkonak</b> , geziak eta tankerako iskilo jaurtigarriak zaparradan botaz egin zien harrera.»	(58)
<b>aztal</b> 'ezproina, zaldia ziztatzekoa'	«Zaldunek <b>aztalei</b> eragin zieten eta abereek ere, irrintzi batzuk egin ondoren, gazteluko bideari ekin zioten zakur taldeari jarraiki.»	(69)
<b>baiarte</b> 'ohatila, gaisoak eramateko'	«... <b>baiarte</b> batean ipiniz —denen artean zekarten bakarra behar estu baterako—, bi gizonen artean eraman zuten.»	(308)
<b>balizko</b> 'posiblea, litzatekeena'	«...haren <b>balizko</b> erauntsietatik defendatzeko, gazteluak sendotu eta gogortzea zen lehendabiziko egitekoa.»	(320)
<b>baratxe-baratxe</b> 'poliki, astiro, emeki'	«...trostan alderatu zen eta hemendik gaztelurainokoa <b>baratxe-baratxe</b> egin zuten, zaldiei sosegu eta patxada ematearren...»	(252)
<b>baratz</b> 'emeki, geldiro'	«Atzerrian —otserri delarik—, oina <b>baratz</b> ipini behar, labainduko ez bada...»	(84)
<b>begietsi</b> 'so egin, begiratu'	«Ekaitz ugaldeak pasako dituk eta zume landareak tinko iraunen dik, bazterretako hondamena irriabar iskiriotsu batez <b>begietsiz.</b> »	(231)
<b>behaztopo egin</b> 'estropozu egin'	«...ibili zen zaldiz ilargipean (...) trosta bizi batean, nahiz eta abere kupigarriari <b>behaztoporik</b> ugari <b>egin</b> erazi.»	(175)
<b>behazun</b> 'gibelaren isurkari mingotsa'	«...bere jazki liluragarriaren azpian, ezti gozo orde, sarritan, <b>behazuna</b> egoten baita gorderik.»	(90)
<b>behinbat</b> 'beste behin, berriz'	«...abagune honetan ere lortu zuen Jesus Jaunaren parabolako belar gaiztoa <b>behinbat</b> gehiago garaile irtetea.»	(57)
<b>behinola</b> 'behin batean, behin'	« <b>Behinola</b> , galdi bat egurrez txit zamatua lohietan josita gelditu omen zitzaion baserritar bati eta egin ahalak eginda ezin atera...»	(179)
<b>beinepein</b> 'behinik behin, behintzat,	«Hark, <b>beinepein</b> , ez baitu aurpegirik estaltzen honek bezala...»	(192)
<b>belauenez belau</b> 'belaualdiz belaualdi, gizaldiz	«Sarritan, Ahaide Nagusien arteko haserregaiak <b>belauenez belau</b> lerratzen ziren...»	(59)




<b>belzkeria</b> 'azpikeria'	«...haren azkeneko hitzak zorrotzak ez ezik zemaikorrak izan baziren ere, ez zuen zalantzarik (...) egin zion <b>belzkeriaz</b> .»	(220)
<b>beratu</b> 'bigundu'	«Zorigaitz ikaragarri haren eragitez, Butroeko jaunaren bihotz idortua, zaildua, gogortua, <b>beratu</b> zen haur batenaren antzo...»	(126)
<b>berebiziko</b> 'apropos, ederki'	«Horra, bada, Butroeko etxeoandre xaharra Muxika jauregiko aginte-makilaz jabeturik <b>berebiziko!</b> »	(46)
<b>berinaki</b> 'beirazko egitura'	«...gazteluaren hormalde nagusira jotzen zuten arkudun <b>berinakiak</b> , Testamentu zahar eta berriko irudiz apaindurik.»	(96)
<b>bertan behera utzi</b> 'bere hartan utzi, abandonatu'	«Ez zuten lortu gazteluak egiteke <b>bertan behera</b> uztea, baina bai (...) Abendañotarrrik eta ez Butroetarrik lurralde haietan agertzea.»	(56)
<b>betizu</b> 'hezikaitza, basatia'	«...lagunartean bere burua agertzeko lehiarik agertzen ez bazuen ere, ez zen herabez gordeka ibiltzen zenetako <b>betizua</b> .»	(291)
<b>bidez besteratu</b> 'itzuri, aldendu'	«Honek, aurreneko galdealdian, neure jakingurari igarririk, ez jakinarena eginaz, mintzagai perilsua <b>bidez besteratu</b> zian.»	(299)
<b>bilbatu</b> 'asmatu eta ondu'	«Begoñatik Butroeraino inorekin mintzatu gabe joan zen, zeharo lelotua, bere mendeku ikaragarria <b>bilbatu</b> nahian.»	(129)
<b>bilin-bolaka</b> 'iraulka, biraka bezala'	«...Joane erraldoiaren gorputza erreka amildegian behera <b>bilin-bolaka</b> jausi zen ikaragarriko abiadan.»	(232)
<b>bilintzi-balantza</b> 'duda-mudatan, ezbaian'	«Bazekien, Jaun Matxin Ganboako aspaldian zebilela <b>bilintzi-balantza</b> , erdi posturan iraun nahirik, ez honen ez haren alde.»	(250)
<b>biloiz</b> 'biluzia'	«...beso biloizak mutilaren lepora luzatuz, laztanka eta musuka hasi zitzaion, maitemenez etsita dagoenaren zoramenez.»	(292)
<b>bipil</b> 'ausarta, kementsua, adoretua'	«—Jaun prestuak, Butroetar eta Guraiatar aitonen seme eta gudari <b>bipilak!</b> »	(243)
<b>buru egin</b> 'aurre egin, aurka egin'	«Jakin al duk eraso noiz hasi zen eta noiz bukatu? Gaztelarrek etsaiari <b>buru egin</b> zioten ala ez?»	(120)
<b>deiadarka</b> 'oihuka, agirika'	«...alaitasunak eta baikortasunak berpizturik (...) <b>deiadarka</b> aditzera eman nahirik ari zen bere gaztetasun joana.»	(48)
<b>derrior</b> 'nahitaez, ezinbestean'	«...hiru semeak ezkonarazteko (...) gizonezkorik sortu ez zen jaurgoak begiz jo behar <b>derrior</b> .»	(81)
<b>deslai</b> 'abandonatua, bere hartan utzia'	«Madalenako ate inguruan abere <b>deslai</b> ugari aurkitu zuten...»	(310)
<b>desordu</b> 'ezordua, desgaraia'	«—Nor zaitugu eta zerk zakartzatza <b>desordu</b> hauetan?»	(114)
<b>dirdai</b> 'distira'	«...Jaun Ardoren berotasun <b>dirdaiak</b> eraginik, bertsoak ere oparo kantatu zituzten arrats luze hartan...»	(47)
<b>dobla</b> 'sos, txakurrandi'	«...honetarako dirua behar zuen, dirua barra-barra, eta bere aitagiarrerebari ezin zion " <b>dobla</b> " bat atera.»	(125)
<b>donetsi</b> 'saindua, santua'	«Baina, arba <b>donetsiok</b> ez zuten ahalmenik izango Arrasateko hiria egur-ikatz bihurtzetik libratzeko...»	(300)
<b>edendu</b> 'pozoitsua'	«—Ez al din beste esanbeharrrik hire mihingain <b>edenduak?</b> »	(77)
<b>edoski</b> 'xurgatu, edan'	«Ahaide Nagusien eskolako irakaspide txarrak oro <b>edoski</b> zituen Jaun Gomizek txipi-txipitandik...»	(59)
<b>egoiliar</b> 'biztanlea'	«...giro tristatu honetan oturuntz aldietako isiltasunak hilobietako <b>egoiliarrena</b> zirudien...»	(130)
<b>elbi</b> 'eulia' (gipuzkeraz)	«...eta bazirudien <b>elbiak</b> azukretan bezain gozo zebiltzala elkarri kunplimenduak eginaz...»	(252)




<b>eleguri</b> 'hitz gozoa, leuna'	«Gainera, Begi Urdinarekin ere <b>eleguri</b> eta pipertsuak erabili zituen...»	(326)
<b>eli</b> 'abere taldea'	«... gero Aramaion sartu zen su eta gar, baserriak eta etxeak erreaz, <b>eliak</b> ostuz eta uztak hankapean hartuz.»	(166)
<b>elkor</b> 'antzia, fruiturik ematen ez	«Tankera honetan jaso zuen bere ahots sumindua, baina bere kexa oihuak oro lur <b>elkorrean</b> jausi ziren.»	(236)
<b>ematen egin</b> 'errenditu, etsi'	«Handikan laster, Lazkaotarren gudariek <b>ematen egin</b> zuten, nik ahal dakit zenbat jende galdu ondoren".»	(23)
<b>endore</b> 'alkatea'	«Jaun " <b>Endorea</b> "k behean espero zaitu hilotzekin zer egin behar den erabakitzeko.»	(120)
<b>enuldurik</b> 'kolorgeturik, zurbildurik'	«...seme honen eginak bizi-bizian ikusten baitzitzuten eta beronen aurrekoenak marguldurik, <b>enuldurik</b> , ahuldurik...»	(60)
<b>erabili</b> 'gogoetatu'	«—Zure aitari buruz kezka bat al <b>darabilzu</b> ?»	(102)
<b>eragingarri</b> 'eragilea, bultzagarria'	«...bazen beste <b>eragingarri</b> nagusi bat elkarrenganako konfidantza kamozteko eta (...) zuka mintzarazteko.»	(37)
<b>erauntsi</b> 'berriketa, "zaparrada"	«...alegia, ezkontza bidez hurbiltzeko asmoari, honela ekin zion <b>erauntsian</b> osoro berotua...»	(105)
<b>erdietsi</b> 'lortu'	«Gurenda gehienak bere berotasunari, jaiotasunari eta bularkoitasunari esker <b>erdietsi</b> ziren...»	(139)
<b>ernai</b> 'erne, adi'	«Izan ere, deabrua beti <b>ernai</b> baitago urritz oloa nola ereingo...»	(56)
<b>erpin</b> 'muturra, punta'	«...eguzkiaren izpi txepel eta pattalak zelai zabaletan, muino gainetan eta mendi <b>erpinetan</b> bakarrik kokatzen ziren nagiro...»	(122)
<b>errebera</b> 'erraz erretzen dena'	«...Leizamongo gaztelua —zuhaitz enbor <b>errebera</b> bailitzen— tximista kiskalgarriek hausterre bihurtu zuten.»	(125)
<b>erreta</b> 'haserre, suminduta'	«—Baina, ez al diat esaten errugabe dela? —anaiak arrebari <b>erreta</b> .»	(336)
<b>errezel</b> 'zapi beltza' (velo)	«...etxetik ateratzen zenetan bezala zimurrak ezin disimulatu baldin bazituen ere <b>errezel</b> baten azpian...»	(48)
<b>eskualdi</b> 'boterea'	«...gutxiesten zituzten (...), zeren leinargiz eta <b>eskualdiz</b> beren goi-mailarik ez zutenekin ez baitzuten berdin zurrean ari nahi.»	(14)
<b>eskuarki</b> 'gehienetan, arruntean, normalean'	«Bidea, <b>eskuarki</b> , laua da, nahiz eta tarteka, muino apal batzuk zeharkatzeko, zenbait gorabehera leun eduki.»	(66)
<b>espa</b> 'jelosia, inbidia, bekaitza'	«...amore eman zuen, nahigabe haundiz, ordea, eta aitaganako <b>espa</b> beterik, zeren bere ametsa (...) ospea irabaztea baitzen.»	(118)
<b>espatsu</b> 'jeloskorra'	«...galdetu zion lasaituagoxe Ugartezabalgo jaun <b>espatsuak</b> .»	(76)
<b>etsaitzako</b> 'etsaitzat hartzen dena'	«...bere bi <b>etsaitsakoak</b> hilez geroztik —etsai titulurik ere ez baitzezaketen merezi—, satorrak antzo gordetzen zuen bere burua...»	(358)
<b>etsigaizto</b> 'temati, petral'	«—Osaba —ekin zion Presebalek <b>etsigaizto</b> —...»	(131)
<b>eutsi</b> 'hartu, tori'	«—Urde alaena! (...) <b>Eutsi</b> , ba! —deiadar egin zuen arrebari amorraturik masaileko bat emanaz.»	(337)
<b>exolezarena egin</b> 'axola gabearena egin'	«...erantzun zien Butroetarrak <b>exolezarena eginaz</b> ...»	(171)
<b>gabetanik</b> 'gabe, barik'	«—Ez, Oneka (...), gurasoek agindu <b>gabetanik</b> nahi genuke zure baiezkoa... Bihotzak aginduta, alegia.»	(109)




<b>gailen</b> 'gorena, nagusiena'	«...hots, mendekua, dorreetxetako zapelaitz haien ohorezko legerik <b>gailenena</b> baitzen.»	(81)
<b>gaitzitu</b> 'haserre erazi, molestatu'	«—Hiri barrutik alde eragiteraino <b>gaitzituko</b> dizkiagu Butroeko saikumeak.»	(230)
<b>gal-gal</b> 'irakiten, sutan'	«Butroek eta Abendañok, elkarrenganako gorrotoz <b>gal-gal</b> , zakurkatu ziruditen, nork nori ausiki egingo...»	(64)
<b>galai</b> 'gorteatzailea'	«Baina, Mari Gabonek, mutilekin txoratil jostatu arren, ez zituen aintzakotzat ere hartzen bere <b>galaiak</b> ...»	(328)
<b>galanta</b> 'itzela, izugarria'	«...gau erdi afari hau ez zen orritsetan eman ohi zuten otordu luze eta astun horietakoa, tripajai <b>galanta</b> zeritzaiokeena, alegia...»	(181)
<b>galdatu</b> 'arragoan egina'	«...bere bidaidetik leialena zeraman, hots, Toledoko altzairuz <b>galdatutako</b> ezpata distiratsua; beronen helgailua eta zorroa...»	(95)
<b>galetsi</b> 'galdutzat eman edo eduki'	«...erabat <b>galetsi</b> behar izan zuen hainbeste aldiz euskaldun zentzugabe haien odolak gorritutako eskualdea.»	(204)
<b>galgarri</b> 'kaltegarria'	«Emakumeak, hain dira buru <b>galgarriak!</b> »	(324)
<b>gandu</b> 'lausoa'	«Baina, zorigaitzez, <b>gandua</b> gero eta argiagotzen ari zait eta nik nahi ez nukeena nagusiagotzen.»	(103)
<b>garaitia</b> 'garaipena'	«...ekin zion Jaun Matxinek barruan sentitzen zuen <b>garaitiaren</b> atsegina ezin gorderik—.»	(53)
<b>gaurgero</b> 'gaurdanik, gaurkora, jadanik'	«Zin egiten diat, bada, neure larrurik ez dukela ikutuko <b>gaurgero</b> .»	(77)
<b>gerizatu</b> 'babestu'	«Jaun Peru Abendañokok eskualdi osoa eman baitzion beronen eskubide eta interesak <b>gerizatzeko</b> ...»	(223)
<b>geroxe</b> 'apur bat geroago'	« <b>Geroxe</b> , bere guda-mutilengana zuzenduz, honelatsu deiadar egin zien...»	(122)
<b>gezi</b> 'eskuz/arkuz jaurtikitzeko	«Butroetarrek, beren luebaki eta oholesietatik, azkonak, <b>geziak</b> eta tankerako iskilo jaurtigarriak zaparradan botaz egin zien harrera.»	(58)
<b>gomitatu</b> 'gonbidatu'	«...Gomiz Onzalutxek Ugartzetabalgo jaun-andre gazteak Aramaioko bere dorretxera <b>gomitatu</b> zituen bolara bat pasatzeko...»	(75)
<b>gurenda</b> 'garaipena, garaitia'	« <b>Gurenda</b> gehienak bere berotasunari, jaiotasunari eta bularkoitasunari esker erdietsi ziren...»	(139)
<b>guri</b> 'leuna'	«...janaririk zaporetsuenak eta ahoragarrienak atera zituen, edaririk <b>gurienez</b> lagundurik, arrotzen omenez emandako afarian.»	(27)
<b>gutziagarri</b> 'gutziatua, desiratua'	«...ez zeuden (...) jangar, baina, hala ere, luzaro samar itxaron behar izan zuten oilo zopa bero eta <b>gutziagarria</b> atera arte...»	(66)
<b>gutzizko</b> 'ezer falta ez duena'	«Muxikako amona-bilobek prestatu zuten oturuntza Jaun Matxin Ganboakoaren omenez, <b>gutzizkoa</b> izan zen.»	(47)
<b>habaila bizian</b> 'abiada handian, arrapaladan'	«...Elgeta eta Angiozartik behera zetozen <b>habaila</b> bizi-bizian Mondragoeko hiria hesitzera.»	(249)
<b>haga</b> 'habea'	«Ziur naiz (...) geronen begiko <b>haga</b> ikusten eta aitortzen bagenek eta ez hurkoaren begiko lastoa, aspaldi lirakeela eginik onezkoak.»	(52)
<b>handiputz</b> 'harroa, harroputza, hantustea'	«...konde zeritzoten beren buruei eta hartarako irritsak eraginda, hala esanarazten zien beren menpekoei kondena <b>handiputzok</b> .»	(239)
<b>hanpatu</b> 'puztu'	«...jarraitu zuen Andre Elbirak garaipenaz <b>hanpatua</b> —.»	(108)
<b>harilkari</b> 'harirako tresna'	«Aldamenean, <b>harilkari</b> bat zeukan edergarri apaindua...»	(96)




<b>hazkura</b> 'hazgalea'	«...jakingurak <b>hazkura</b> eraginik, lotara joan beharrean, ate gibelean gelditu zen adimin.»	(211)
<b>herabe</b> 'lotsa, ahalkea'	«...lagunartean bere burua agertzeko lehiarik agertzen ez bazuen ere, ez zen <b>herabez</b> gordeka ibiltzen zenetako betizua.»	(291)
<b>hilduratu</b> 'mindu, mortifikatu'	«Izan ere, mirestekoa baita zure amak zenbateraino <b>hilduratu</b> duen bere burua gure zorionbide malkortsua lautzeko.»	(268)
<b>hilkintza</b> 'hilketa'	«Nik, ordea, ezin dezaket <b>hilkintza</b> onetsi eta goretsi, eta gure alderdikeria (...) krudelak erabat bukatzea da ene helburu bakarra.»	(51)
<b>horratx</b> 'horra hor'	« <b>Horratx</b> , bada, haren asko makurra...»	(57)
<b>hotsandiz erabili</b> 'aldarrikatu, ozenki agerterazi'	«...mandatu egin zien bere esanekoei, bere larre eskubideak <b>hotsandiz erabiltzeko</b> ...»	(227)
<b>hurko</b> 'norberaren hurrengoa, bestea'	«Ziur naiz (...) geronen begiko hagea ikusten eta aitortzen bagenekia eta ez <b>hurkoaren</b> begiko lastoa, aspaldi lirakeela eginik onezkoak»	(52)
<b>hurrenez hurren</b> 'bata bestearen ondoren'	«Hots, Itxusko eta Burde zure zerbitzuan har ditzazula. Orain hemeretzi eta hamazazpi urte dituzte <b>hurrenez hurren</b> ...»	(325)
<b>ibar-jaun</b> 'merinoa, epailea'	«Izan ere, <b>Ibar-jauna</b> justiziaren izenean ezin zitekeen sar inoren etxean indarrez eta are gutxiago gauez.»	(236)
<b>igorri</b> 'bidali'	«Baiezkoan, zalgurdia berak <b>igorriko</b> zien, berei zegokien handikitasunean eta erosotasunean egin zezaten txangoa.»	(326)
<b>ihesliar</b> 'iheskaria'	«Gizasemerik erraldoienek eta indartsuenek muga bat izaten dutela jatenean pentsatzen zuten Butroeko <b>ihesliarrak</b> ...»	(182)
<b>ilunkara</b> 'kolore ilunekoa, iluna'	«...kaputxadun dominozko kapa zabal eta <b>ilunkara</b> bat zeraman...»	(327)
<b>inda</b> 'bidezidorra, bideska estua'	«Kalez kale eta <b>indaz inda</b> ihesean doazelarik, (...) erretzen ari diren etxeak oso-osorik eroriko zaizkie burutik behera.»	(285)
<b>inguru-minguru</b> 'gutxi gora-behera, hortxe-hortxe'	«...hogeita bost urteak <b>inguru-minguru</b> zituen gizasemea zen...»	(83)
<b>inude</b> 'hazama, umeak hazteko	«Amak ekarri zien <b>inudea</b> Oihara haranekoa zuten.»	(72)
<b>iraka</b> 'belar kaltegarria/gorrotua'	«Izan ere, gutartean <b>iraka</b> ereiteari biderik egokiena baderitzok...»	(217)
<b>iraka erein</b> 'gorrotua, ezinikusia hedarazi'	«Izan ere, gutartean <b>iraka ereiteari</b> biderik egokiena baderitzok...»	(217)
<b>irakin-irakinean</b> 'bol-bol, bizi-bizi'	«Hain zuzen ere, garenak garelako, irau du gure arteko gorrotuak <b>irakin-irakinean</b> .»	(52)
<b>irazeki</b> 'biztua, sutan'	«...zuzi irazekiek —gutziz ere arranbelen eraginez jaurtikiak—, (...) leihoetan sartuz bete ohi zuten beren egitekoa.»	(302)
<b>irazle</b> 'idazlea'	«Gaztelako lurretan, <b>irazole</b> hilezko baten irudimenean, Quijote ameslari hura sortu baino mendetsu bat lehenago...»	(261)
<b>irmo</b> 'tinko, gogor'	«Azken hitz bikotea, "hitzez hitz" alegia, ahots sendoagoz oguzi zuen, bere salaketari <b>irmo</b> eusten ziola adierazi nahian.»	(21)
<b>irriabartsu</b> 'irribarretsu'	«—Ene, baina! —ekin zion <b>irriabartsu</b> Onetak—.»	(90)
<b>irrits</b> 'gutizia, gogo bizia'	«...konde zeritzoten beren buruei eta hartarako <b>irritsak</b> eraginda, hala esanarazten zien beren menpekoei kondenahi handiputzok.»	(239)
<b>iseka egin</b> 'burla egin, trufatu'	«Izan ere, nor dela uste duk Gomiz Onzalutx Butroeko bere lepotik horrela <b>iseka egiteko</b> ?»	(96)




<b>isilpeko</b> 'sekretua'	«—Ene <b>isilpekoa</b> agertuko diat, bada, ni nor naizen ezagaturik, oraindik igarri ez badiok.»	(295)
<b>iskilo</b> 'arma'	«Indarra zuen bere <b>iskilo</b> bakarra...»	(112)
<b>iskiriotsu</b> 'isekaria'	«Ekaitz ugaldeak pasako dituk eta zume landareak tinko irauenen dik, bazterretako hondamena irriabar <b>iskiriotsu</b> batez begietsiz.»	(231)
<b>isla</b> 'soslaia, perfila'	«Eguna urratzen hasia zen dagoeneko Laintza ibarreko mendien <b>isla</b> gainetik (...) ihesari eman zion...»	(176)
<b>istatsu</b> 'distiratsua, dirdaitsua'	«...eguzkiaren aurpegi eder-iritziari bere gailurraldi <b>istatsuan</b> laino zuri eta mehe batzuk tartekatzen zitzaizkion noiz behinka...»	(215)
<b>itoiti</b> 'itaxura, itogina'	«Baina bazitekeen (...) gordeleku honetara aldatzea <b>itoiti</b> beldurgarria estali beharrez.»	(310)
<b>itun</b> 'hitzarmena, paktua'	«Ondorengo egun batean, Mungiako iskribauaren aitzinean, hiru zatidun <b>itun</b> bat firmatu zuten.»	(110)
<b>itxurati</b> 'itxurak egiten dituen'	«Aurpegiak salatzen hau, hire usakume aurpegiak hain zuzen ere, <b>itxurati</b> alaena!»	(93)
<b>itzul egin</b> 'ekidin, itzuri egin'	«...baratzeko pikupe batean gorde ziren bakartasun zurrian eta begiratu desegokiei <b>itzul egiteko</b> .»	(154)
<b>izorra gelditu</b> 'haurdun, umedun geratu'	«Neskaren gurasoek beren alaba etxetik bota zuten, hau <b>izorra gelditu</b> zela jakitean.»	(31)
<b>izorrakeria</b> 'sexurako gehiegizko joera'	«Sabelkeria eta <b>izorrakeria</b> —edo hizketa modu leunagoz, jalekeria eta lizunkeria— zituen bizilege...»	(124)
<b>janaritu</b> 'elikatu, bazkatu'	«Emakumeak eta fraideak <b>janaritzen</b> dituk horrelako zuntzunkeriez.»	(128)
<b>jangar</b> 'gose gabe'	«Gure zaldunak ez zeuden, inolaz ere, <b>jangar</b> , baina (...) itxaron behar izan zuten oilo zopa bero eta gutziagarria atera arte...»	(66)
<b>jarrai hakit</b> 'segi iezadazu' (hika)	«Baina, ken ezak <b>longaina</b> astun hori eta jarrai hakit mainu gelara.»	(178)
<b>jatenean</b> 'jateko orduan'	«Gizasemerik erraldoienek eta indartsuenek muga bat izaten dutela <b>jatenean</b> pentsatu zuen Butroeko ihesliarrak...»	(182)
<b>jaurgo</b> 'jaun lurraldea, inperioa'	«...gerora (...) bere babesean bilduko zituen Butroeko, Muxikako eta Aramaioko <b>jaurgoak</b> .»	(72)
<b>joanaldi</b> 'txango, bidai'	«...bere egitekoek erakarrira hirira zuenean <b>joanaldi</b> , ez zen etxeratuko bere amarekin gutxienez egun pare bat pasatu gabe.»	(213)
<b>josita</b> 'itsatsita, lotuta'	«Behinola, gurdi bat egurrez txit zamatua lohietan <b>josita</b> gelditu omen zitzaion baserritar bati eta egin ahalak eginda ezin atera...»	(179)
<b>kadentsu</b> 'malenkoniatsua'	«Behin Errigoitiko mendatea igaroz gero, erreka <b>kadentsu</b> honi jarraitu beste lanik ez dago Gomiz Onzalutxen gaztelura iristeko...»	(66)
<b>kalakari</b> 'hitzontzia, berbalapikoa'	«...lagundu besterik ez omen zion egin gurdia bultzaka eta tiraka, eta gainerakoak atso <b>kalakarien</b> berriketak omen ziren.»	(180)
<b>kamotz</b> 'motza, laburra'	«...hiriaren antzinako izena Leibai omen zen; euskara galtzearekin etorri omen zitzaion, gerora, aldaketa <b>kamotz</b> hau...»	(71)
<b>kamoztu</b> 'kamustu, gutxitu, urritu'	«...bazen beste eragingarri nagusi bat elkarrenganako konfidantza <b>kamozteko</b> eta (...) zuka mintzarazteko.»	(37)
<b>kaparetasun</b> 'noblezia'	«Aberastasunean eta <b>kaparetasunean</b> Mendiolarrek ez zuten Olasotarren mailarik iristen.»	(13)
<b>karranka</b> 'kirrinka'	«Zurezko pasadizua jaisten zen artean, beronen ontzek <b>karranka</b> latz eta bizi bat atera zuten...»	(114)




<b>kizkurbera</b> 'kirrua, kiribildua, kizkurra'	«...baina orduko adats <b>kizkurbera</b> lautu egin zitzaion.»	(262)
<b>koipe lustre hori</b> 'lausengaria halakoa'	«—Zu beti losintxetan emakumeekin, <b>koipe lustre hori!</b> »	(154)
<b>kontakatilu</b> 'hitzontzia, berbalapikoa'	«Izan ere, nik Ganboatarren artean barreiaturik dauzkadan zelatari eta <b>kontakatiluek</b> ustegabeko albisteak ekarri baitzizkiratek.»	(85)
<b>kordokarazi</b> 'kolokan jarri'	«Jaun Eneko Muxikaren ezkontzak Butroeko jaurgoa indartu ez ezik, etsaiaren indarrak <b>kordokarazi</b> zituen...»	(81)
<b>kozkortu</b> 'handi samar egin, hazi'	«...aitak bide bazter batean galdua eta goseak akabatzen aurkitu zuela etaetxera ekarriz mutil <b>kozkortu</b> eta hazi zela.»	(31)
<b>kukutu</b> 'ezkutatu, ostendu, gorde'	«...bere zurabula gorriak bota luze batzuren barrukaldean <b>kukutzen</b> ziren.»	(30)
<b>kupigarri</b> 'gaixoa, gizarajoa, koitadua'	«...ibili zen zaldiz ilargipean (...) trosta bizi batean, nahiz eta abere <b>kupigarriari</b> behaztoporik ugari eginarazi.»	(175)
<b>laido</b> 'mesprezua, iraina'	«...zaldun batek bere bizian <b>laido</b> baten mendekua hartzeko abagunerik aurkitzen ez bazuen, semeak hartzen zuen bere gain...»	(59)
<b>laidogarri</b> 'laidagarria, iraingarria'	«...Ahaide Nagusi batentzat apalgarri eta <b>laidogarri</b> da horrela mintzatzea, giristino izatetik oso urruti baikabiltza...»	(52)
<b>lain</b> 'beste, adina'	«Hain zuzen ere, kaparetasunean Butroeren <b>laingo</b> denik ez zegok...»	(85)
<b>laineza</b> 'jarrera harroskoa'	«...Andre Elbirari <b>lainezaz</b> jakin erazi zion, Elgoibarrera txango joateko prestaerak egiten hasteko garaia heldua zela.»	(151)
<b>lainoki</b> 'azpikeriarik gabe'	«—Desafio egin nahi badidazu, eskubidean zaude —esan zion orduan Jaun Matxinek <b>lainoki</b> .»	(51)
<b>lainotasun</b> 'zintzotasuna, apaltasuna'	«Bere aurpegian ez zen nabari euskaldun arrazari hain bere zaion <b>lainotasun</b> eta prestutasun erakusgarririk.»	(240)
<b>lantegia eman</b> 'bizibidea, ogibidea eman'	«...ezkon-saritzat jasotako ondasun meheak <b>lantegi urria</b> ematen zioten eta bere aitarenak, lodiak izan arren, deus ez...»	(351)
<b>lardaskari</b> 'nahastaria'	« <b>Lardaskari</b> jaioa, auzilari argia eta konponketari trebea zen...»	(60)
<b>lardaskatu</b> 'nahasi, mordoilatu'	«...hauen arteko auzi-mauziak eta herriko eskandalurik nabarmenenak gozaro <b>lardaskatuz</b> eta komentatuz.»	(30)
<b>lauhazka</b> 'trostan, arrapaladan'	«...zalduna egin ahalean zetorren, aztalak jo eta zizta, <b>lauhazka</b> bizian, abere gaixoa akabatu beharrez.»	(113)
<b>lautu</b> 'erraztu'	«...albisteok egiazkoak baldin badira, gure egitekoa asko <b>lautuko</b> duk.»	(85)
<b>leinargi</b> 'linajea'	«...gutxiesten zituzten (...), zeren <b>leinargiz</b> eta eskualdiz beren goi-mailarik ez zutenekin ez baitzuten berdin zurrean ari nahi...»	(14)
<b>leinargitasun</b> 'noblezi maila'	«Aipatutako <b>leinargitasun</b> arrazoiaz gainera, bazen beste eragingarri nagusi bat elkarrenganako konfidantza kamozteko...»	(37)
<b>lekore</b> 'kanpo, at, bereiz'	«...hiri harresiz <b>lekore</b> gelditzen zen andre Antigoakoaren elizaz jabetu ziren.»	(57)
<b>lera</b> 'akatsa, ajea'	«... <b>lera</b> guztiok bere aurrekoetan baino garatuago, haziago eta hanpatuago omen zeuden Gomiz Onzalutxen ariman.»	(60)
<b>leratsu</b> 'sutsua, pasiozkoa'	«...poztasun eta alaitasun anaiakor bat zabaldu zuten Ahaide Nagusi <b>leratsu</b> eta oldartsu haien artean.»	(47)
<b>lermatu</b> 'ahuldu'	«...ez zezakeen laga seme zaharrenaren senipartea <b>lermatzen</b> , bigarrenkume batek horrela eskatzen ziolako.»	(162)




<b>lerratu</b> 'irristatu, labandu'	«Sarritan, Ahaide Nagusien arteko haserregaiak belaunez belauen <b>lerratzen</b> ziren...»	(59)
<b>limurtu</b> 'goxo-goxo egon'	«Jaun Gomizek, bi gazteak <b>limurtu</b> samartuak zeuden batean elkarri eztiki mintzatuz, zirikatu nahi izan zion...»	(154)
<b>liztor</b> 'intsektu mihiztoduna'	«Loreok, <b>liztor</b> -mihiztoak nahikeriazko gozoa zurrupatu ondoren, bide bazterrean gelditu ziren, zimeldurik...»	(83)
<b>lohi</b> 'basatza'	«Behinola, gurdi bat egurrez txit zamatua <b>lohietan</b> josita gelditu omen zitzaion baserritar bati eta egin ahalak eginda ezin atera...»	(179)
<b>longaina</b> 'soingainekoa, abrigoa'	«Baina, ken ezak <b>longaina</b> astun hori eta jarrai hakit mainu gelara.»	(178)
<b>losintxa</b> 'lausengua, gezurrezko laudorioa'	«Aitor dezagun, gainera, Jaun Estibarizek ez zizkiola <b>losintxaz</b> esan bere ahotik isuri ziren hitz eztiak baizik eta (...) miretsita.»	(28)
<b>luebaki</b> 'lurrean eginiko lubana, zulo	«Jauregia gudu gaztelu bihurtu zuten <b>luebakiz</b> eta oholesiz inguratirik...»	(57)
<b>mahuka</b> 'manga'	«...upulurda berde-ilun bat zeraman soinean <b>mauka</b> zabalekikoa eta txapela hegaldun bat luma batez gailendurik.»	(32)
<b>maizter</b> 'errentan dagoena'	«...dorretxea birreraikitzen ari ziren langileak preso hartuz eta Jaun Gomizen <b>maizterrei</b> kalteak eta hondamenak eginaz.»	(61)
<b>maiztu</b> 'ajatua, gastatua'	«...saten beltzeko soineko dotore baina <b>maiztu</b> samar batez jantzirik etorri zen...»	(327)
<b>makur</b> 'azpikeriazkoa'	«...ezin dezaket hilkintza onetsi (...), eta gure alderdikeria setatsu, <b>makur</b> eta krudelekin erabat bukatzea da ene helburu bakarra.»	(51)
<b>malmutz</b> 'maltzurra'	«—Ez hago hi azeri txarra —bota zion aldarte onez Butroeko jaun <b>malmutzak</b> —.»	(87)
<b>marguldurik</b> 'kolorgeturik'	«...aitonen seme honen eginak bizi-bizian ikusten baitzituzten eta beronen aurrekoenak <b>marguldurik</b> , enuldurik, ahuldurik...»	(60)
<b>martzal</b> 'noblea'	«Olasoko jaunaren giza-tankera <b>martzalak</b> , zaldizkako ibilera lirainak eta gorputzaren lerdetasunak miretsirik utzi zituen...»	(90)
<b>mataza</b> 'hari nagusia'	«...gure ipuin <b>matazari</b> ez genioke askotan zentzurik aurkituko, aurretikako albisterik nagusienak eman ez bagenitza.»	(74)
<b>maxio egin</b> 'maiseatu, iseka egin, trufatu'	«Erauntsiari burua garaiz makurtu behar zaiok, zume landareak ohi duenez, eta gero (...) tantai sustraituari <b>maxio egin</b> .»	(229)
<b>mehargune</b> 'estunea'	«...Eibarko <b>mehargunean</b> sartuz, irudi zaio bidaztiari kaiola baten barruan sartzen dela...»	(33)
<b>menia</b> 'su etena, tregua'	« <b>Menia</b> bolara hartan, Ihoanes Abendañoko, gudu prestaketan edo, Gernikara, Arteagara eta Bermeora heldu zen laurogei gizonekin.»	(57)
<b>mihizto</b> 'narratzien bi puntadun mihia'	«Loreok, liztor- <b>mihiztoak</b> nahikeriazko gozoa zurrupatu ondoren, bide bazterrean gelditu ziren, zimeldurik...»	(83)
<b>mirabe</b> 'otseina, zerbitzaria'	«...bere biloba bialdu zuen Butroera bere <b>mirabeak</b> eta tresnak erakartzeko...»	(46)
<b>morroilo</b> 'kandatua, giltza'	« <b>Morroilopean</b> egindako ilunaldiaren ondoren, beretzat zitekeen ametsik zoragarriena...»	(75)
<b>moxal</b> 'zaldi gaztea'	«Onean nahi ez badu, txarrean izango da. Neure zigorrak aguro heziko du <b>moxal</b> urruza.»	(338)
<b>mukuru</b> 'erabat, guztiz'	«...kunplimentu eta opaespen klase guztiak izan zituen berarekin (...) Jaun Matxinen gurari eta apeta guztiak <b>mukuru</b> betearaziz.»	(100)
<b>mustupil</b> 'aurpegiera, itxura'	« <b>Mustupilez</b> , luzatua baino borobildua hobeto zen eta ilez beltz eta kizkurra.»	(240)




<b>musu</b> 'aurpegia'	«Eguna urratzen hasia zen dagoeneko Leintza ibarreko mendien isla gainetik eta ilargi bete <b>musu</b> zurbilak (...) ihesari eman zion...»	(176)
<b>nagusikeria</b> 'agintekeria'	«...grina klase guztiak (...), baina harrokeriaren seme direnak bereziki — <b>nagusikeria</b> , ankerkeria, zurikeria, norkeria...»	(60)
<b>naharotasun</b> 'emankortasuna'	«...baina badituzu, euren ordez, ibai zabalak darion eztitasun paregabea eta <b>naharotasun</b> miresgarria.»	(36)
<b>no to izan</b> 'emakumezkoa gizon izan'	«Olaso dorrean, egia esan " <b>no zen to</b> ", "oiloa oilar".»	(29)
<b>norbaiten galde egin</b> 'norbait ote dagoen galdetu'	«Eneko Kanpain alderatu zen hurren zeukan sailera eta Gomiz <b>Onzalutxen galde egin</b> zien.»	(304)
<b>norbere buruaz beste egin</b> 'norbere burua hil,suizidatu'	«...ezezkoa ematen baldin bazion kapaz izanen zela <b>bere buruaz beste</b> egiteko edo komentu batean lurperatzeko...»	(292)
<b>nork bere opilari su eman</b> 'nork bere aldera egin, mesede..'	«...auzi asko erabili zituzten eskuartearen, bakoitzak bere <b>opilari su</b> emanaz.»	(225)
<b>norkeria</b> 'norberekeria'	«...grina klase guztiak (...), baina harrokeriaren seme direnak bereziki —nagusikeria, ankerkeria, zurikeria, <b>norkeria</b> ...»	(60)
<b>ñarro</b> 'exkaxa, garrantzi gutxikoa'	«—Etsai <b>ñarroa</b> Butroeko, Muxikako eta Aramaioko jaunarentzat. Alde horretatik ez diagu arriskurik.»	(347)
<b>oguzi</b> 'ahoskatu, pronuntziatu'	«Azken hitz bikotea, "hitzez hitz" alegia, ahots sendoagoz <b>oguzi</b> zuen, bere salaketari irmo eusten ziola adierazi nahian.»	(21)
<b>oguzkera</b> 'ebakera, ahoskera'	«...baina done izenar ez zion bere asabaren <b>oguzkera</b> berbera erasten, honek Peru baitzeritzan bere buruari.»	(239)
<b>oholesi</b> 'oholezko hesia, babeserako'	«...beren luebaki eta <b>oholesietatik</b> , azkonak, geziak eta tankerako iskilo jaurtigarriak zaparradan botaz egin zien harrera.»	(58)
<b>okitu</b> 'asebete, bete-bete egin'	«Arrasateko jatetxe batera, eta ardoz ongi <b>okitutako</b> batean agindu zion eskatzen zion testigutza eginen zuela...»	(221)
<b>oldartsu</b> 'ausarta, kementsua'	«...poztasun eta alaitasun anaikor bat zabaldu zuten Ahaide Nagusi leratsu eta <b>oldartsu</b> haien artean.»	(47)
<b>omen</b> 'ospea, ohorea'	«—Gertatuak gertatuta, ezkontza hori onartuko bagenu, gure ohorea eta <b>omena</b> zikindua geratuko litzateke.»	(336)
<b>onibar</b> 'ondasuna'	«...legeak erauziak edo geldituak baitzeuden honen <b>onibarrak</b> .»	(351)
<b>ontz</b> 'ate orpoa'	«Zurezko pasadizua jaisten zen artean, beronen <b>ontzek</b> karranka latz eta bizi bat atera zuten...»	(114)
<b>oraindik orain</b> 'duela gutxi / oraindikan'	«...Ganboako etxearen deitura daramatela eta, <b>oraindik orain</b> , (...) Jaun Matxin buruzagitzat aitortzen dutela.»	(84)
<b>oroiz</b> 'oroipenez'	«Bigarrenari Onzalu zeritzan (...). Hirugarrenari, Otxoa, Otsandion hildako osabaren <b>oroiz</b> .»	(72)
<b>orrits</b> 'jaialdia, ospakizuna'	«...gau erdi afari hau ez zen <b>orritsetan</b> eman ohi zuten otordu luze eta astun horietakoa, tripajai galanta zeritzaiokeena, alegia...»	(181)
<b>ortu</b> 'baratzea, soloa'	« <b>Ortuari</b> kontu egiteko grinarik ez zait sekula sortu, ez baita Aitonon Seme baten lanbidea...»	(101)
<b>osin</b> 'putzua'	«Ate nagusia <b>osin</b> gainean zegoen eta bikotea zen.»	(68)
<b>otezko</b> 'balizkoa, alegiazkoa, posiblea'	«...andrearekin eztabaidan iharduten zuen, euren seme-alabentzako <b>otezko</b> ezkontideen alderdi onak eta txarrak doi-doi neurtuaz.»	(80)
<b>oturuntza</b> 'janaldi ugaritsua'	«Muxikako amona-bilobek prestatu zuten <b>oturuntza</b> Jaun Matxin Ganboakoaren omenez, guztizkoa izan zen.»	(47)




<b>otxan-otxan</b> 'otzankiro, apaltasunez'	«Hau ez baitzen batere agindunahia eta <b>otxan-otxan</b> makurtu zitzaion bere amonari.»	(46)
<b>panpin</b> 'txukuna eta dotorea'	«Butroeko alabatxo <b>panpinak</b> soineko urdin baten estalgarri, gonagaineko zuri bat zeraman urrez bordatua...»	(109)
<b>patal</b> 'geldoa'	«Azaroa amaitzen ari zenez, eguzkiaren izpi txepel eta <b>pattalak</b> zelai zabaletan, muino gainetan (...) kokatzen ziren nagiro...»	(122)
<b>patxadan</b> 'astiro, lasaikiro'	«—Zuen albiste eta aholkuak hausnartuko ditut <b>patxadan</b> —izan zen otsandiotar gazte sutsuaren erantzupen zuhurra—.»	(52)
<b>pendiz</b> 'malda, goiunea'	«Harkaitz gainetik ederki ikus zitezkeen etorkinak beren buruak gordeak edukirik, ezkutune onak baitzituen <b>pendiz</b> hark.»	(224)
<b>periltsu</b> 'arriskugarria'	«Pausu <b>periltsu</b> hau emateko, Txorgorik jakin erazi zion (...) perretxikotara zihoala eguerdian itzultzeko.»	(222)
<b>pilpiragarri</b> 'emoziozkoa'	«...beretzat zitezkeen ametsik zoragarriena, ehize jolas <b>pilpiragarriaz</b> horditzea zen...»	(75)
<b>pipertsu</b> 'pikantea'	«Gainera, Begi Urdinarekin ere eleguri eta <b>pipertsuak</b> erabili zituen...»	(326)
<b>pipertu</b> 'interesgarri bihurtu'	«Izan ere, mintzagaia txepelki hasi bazen, familiakoen eta ahaideen albisteak elkarri emanaz, laster asko <b>pipertu</b> zen...»	(30)
<b>pitotxa</b> 'lephoria' (marta)	«...kaputxadun dominozko kapa zabal eta ilunkara bat zeraman, barrutik <b>pitotxa</b> larruz forratua.»	(327)
<b>pozkidagarri</b> 'pozgarria, alaitasuna ematen	«...Oneka (...) zen, inguru guztian somatzen zuen ustelgiro kiratsean, (...) neke aringarri eta lore usaintsu <b>pozkidagarri</b> .»	(261)
<b>progotxu</b> 'probetxua'	«...eta bere adiskiderik zintzoena eta leialena saldu ere bai, bere <b>progotxuak</b> hala eskatuz gero.»	(60)
<b>progu</b> 'hileta prozesioa'	«Jaun Gomizen bihotz ikara guztizkoa izan zen halako leialtasuna eta jarraigoa nabaritu zuenean <b>proguan</b> .»	(127)
<b>pulunpatu</b> 'murgildu'	«...alderdien arteko gudu zitaletan buru-belarri <b>pulunpaturik</b> , (...) errukiari bere bihotzeko ateak sorgor bihurtu zitzaizkion.»	(209)
<b>sabel zorri</b> 'tripa zorriak, gosea'	«Bart ez nian afaldu eta hainbesteko mendibidean neka-neka egin ondoren, igarri diezaiokek ene <b>sabel zorriari</b> .»	(177)
<b>sabelkeria</b> 'janarirako gehiegizko joera'	« <b>Sabelkeria</b> eta izorrakeria —edo hizketa modu leunagoz, jalekeria eta lizunkeria— zituen bizilege...»	(124)
<b>sakaildu</b> 'sakailatu, suntsitu'	«...hura Mondragoera iritsi baino lehen, bagoazke denok antxintxika, bi su artean <b>sakailduak</b> izan gura ez badugu...»	(278)
<b>sarraski</b> 'triskantza, txikizioa'	«...nolanahiko haize bolada sortu orduko, ustez itzalia zegoen txinparta, sutzen zen berriro, ikaragarritzko <b>sarraskiak</b> eginaz.»	(59)
<b>satsu</b> 'zikina, lohia, saskela'	«...aberastasanak ezin eros zezakeen bere indar <b>satsuaz</b> izpirituaren dohainik.»	(54)
<b>sen</b> 'berezko zentzua, joera'	«Zakurrak (...) maldan behera abiatu ziren, (...) beren jo mugaren berri <b>senak</b> jakinarazten ziela aditzera emanik.»	(69)
<b>sendoetsi</b> 'baieztatu'	«—Bai, hau da Bizkaia — <b>sendoetsi</b> zion Estibariz Mendiolakok...»	(34)
<b>sesioan aritu</b> 'eztabaidan, liskarrean'	«...Presebal zenuten zuen begikoa eta hirurok <b>sesioan aritzen</b> zineten ene lehengusu begi urdinak nori egiten zion txera hobea...»	(90)
<b>setatsu</b> 'tematia, egosgogorra'	«...ezin dezaket hilkintza onetsi(...), eta gure alderdikeria <b>setatsu</b> , makur eta krudelekin erabat bukatzea da ene helburu bakarra.»	(51)
<b>sinestargal</b> 'mesfidati, sinestu gabe'	«—Noiz eta nola? —galdetu zion Abendañoko jaunak <b>sinestargal</b> —.»	(280)



<b>talai</b> 'begiralekua'	«Dorre nagusi honek aitzin-gibeletara hiruna <b>talai</b> zituen eta saihetsetara bina»	(67)
<b>tantai</b> 'erraldoia'	«Baraxuengo <b>tantaiak</b> bete zuen bere eginkizun tristea.»	(198)
<b>topa egin</b> 'brindisa egin'	«...gurenda honen eragile izan zareten guztiokin ene ardo kopa jo nahi nuke. <b>Topa</b> , beraz, guztion osasungarri!»	(243)
<b>trosta</b> 'trotea'	«Butroeko seme kementsua gau guztia ibili zen zaldiz ilargipean; ez, noski, arrapaladan (...) baina bai <b>trosta</b> bizi batean...»	(175)
<b>txairoki</b> 'dotore, ederkiro'	«...leihu luze-estuekin konbinaturik, aspilerak eta tronerak zituen <b>txairoki</b> sakabanatuta.»	(252)
<b>txanbelin</b> 'apaina, itxura dotorekoa'	«...harrizko mahai biribil eta <b>txanbelin</b> batek apaindura berezi eta bizigarri bat ematen zioten...»	(251)
<b>txango</b> 'bidaia'	«Baiezkoan, zalgurdia berak igorriko zien, berei zegokien handikitasunean eta erosotasunean egin zezaten <b>txangoa</b> .»	(326)
<b>txango joan</b> 'bidaian joan'	«... jakin erazi zion Elgoibarrera <b>txango joateko</b> prestaerak egiten hasteko garaia heldu zela.»	(151)
<b>txastatu</b> 'dastatu, probatu'	«—Pobretasunaren garratza <b>txastatu</b> ez duenak ez daki haudiki izateak zer balio duen...»	(93)
<b>txatxala</b> 'txoriburua'	«—Andre <b>txatxala</b> aho zikin hori!»	(76)
<b>txera egin</b> 'abegia, harrera'	«...hirurok sesioan aritzen zineten ene lehengusu begi urdinak nori egiten zion <b>txera</b> hobe...»	(90)
<b>txiki-arraio egin</b> 'zeharo suntsitu, ezereztu'	«...batak bestea <b>txiki-arraio egitea</b> zuten helburu bakar.»	(62)
<b>txinparta</b> 'su pindarra'	«...nolanahiko haize bolada sortu orduko, ustez itzalia zegoen <b>txinparta</b> , sutzen zen berriro, ikaragarritzko sarraskiak eginaz.»	(59)
<b>txirrika</b> 'polea'	«Kateok horman egindako bi zulotatik ateratzen ziren eta <b>txirrika</b> batzuen bitartez barrutik jaisten edo altxatzen zuten zubia.»	(68)
<b>txirtxilatu</b> 'zirtzilatu, birrindu, txikitu'	«...Lekutioko gaztelua hartzen saiatzen baldin bagara, guztiok <b>txirtxilatu</b> ko gaituzte Jaun Peruren gudariek.»	(131)
<b>txitean-pitean</b> 'une oro, eten gabe'	«Janaririk zapoetsuenak, leher eta zapart egiteko ugaritasunean, <b>txitean-pitean</b> ateratzen zituzten mahaira.»	(47)
<b>txolin</b> 'txoriburua, kaskarina'	«Uste dut ene alabarekin konponduko naizela. Ez al nau amodio zoro baten truk salduko <b>txolin</b> horrek.»	(322)
<b>txoratil</b> 'apur bat txoro, buruarin'	«Baina, Mari Gabonek, mutilekin <b>txoratil</b> jostatu arren, ez zituen aintzakotzat ere hartzen bere galaiak...»	(328)
<b>txuliatu</b> 'norbaitekin jolastu, adarra jo'	«Bazirudik, ordea, gu <b>txuliatu</b> nahian ari haizela zirika.»	(256)
<b>ualanor</b> 'txakur mota' (alano)	«Zezen-zakur eta <b>ualanorek</b> kupidagabe jazarririk, ehiztarien gordelekuetara urduri eta larri hurbiltzen ziren basahuntz...»	(98)
<b>ubegi</b> 'sorlekua'	«...egiaren zalantza apurrik ez edukitzeko, beharrezkoa zuen iturri <b>ubegira</b> jotzea...»	(221)
<b>ugalde</b> 'uholdea, uriola'	«Ekaitz <b>ugaldeak</b> pasako dituk eta zume landareak tinko iraunen dik, bazterretako hondamena irriabar iskiriotsu batez begietsiz.»	(231)
<b>unto</b> 'ontoa'	«...patio erdian <b>unto</b> baten gisa kokaturiko harrizko mahai biribil eta txanbelin batek apaindura berezi (...) bat ematen zioten...»	(251)
<b>upulurda</b> 'kasaka'	«Olasoko gaztelu-jauna, urdin koloreko <b>upulurda</b> batez jantzirik zihoan.»	(30)



<b>uren</b> 'noblea'	«Eta nork ideia hau burutik ken hirurogeita hamar urtetik gorako andre <b>uren</b> bati?»	(46)
<b>urritz olo</b> 'iraka' (belar txarra)	«Izan ere, deabrua beti ernai baitago <b>urritz oloa</b> nola ereingo...»	(56)
<b>urrumaka</b> 'kurruka'	«Ez dituzu ikusten usoak bezalatsu <b>urrumaka</b> ari direla elkarren maitemenez?»	(157)
<b>urruza</b> 'urrixa, emea, emakumea'	«Neure zigorrak aguro heziko du gure moxal <b>urruza</b> .»	(338)
<b>urte joana</b> 'iragandako urteak, denbora'	«Adatsa (...) urdintzen hasi zeukan baina, <b>urte joanaren</b> ezaugarri honek helduaroari dagokion lilura berezi bat ematen zion...»	(28)
<b>urtetsu</b> 'urte inguru'	«...Jaun Matxin baino sei-zazpi <b>urtetsu</b> zaharragoa zen.»	(32)
<b>usnaka</b> 'usaina hartzen'	«Zakurrak, isatsak dantzari eta ahoak zaunkari, poz jarioka eta muturrak lurtean <b>usnaka</b> , maldan behera abiatu ziren...»	(69)
<b>utikan</b> 'ken(du), alden(du), uxa(tu)'	«— <b>Utikan</b> gugandik bekaitzak, gorrotoak, mendekuak eta gainerako grina gaiztoak...»	(267)
<b>uztarri</b> 'menpekotasunezkoa'	«Oñatiarrek behin baino gehiagotan urratu nahi izan zuten Gebaratarren agintaritzak ezarri zien <b>uztarri</b> anker eta azpiratzailea...»	(206)
<b>xehe</b> 'arrunta'	«...gudu makur eta zitalez nazkatuak zeuden guztiak, nahiz jende <b>xehak</b> , nahiz goituak...»	(259)
<b>zabal-antxa</b> 'zabaltxoa'	«Beheko atea, ostera, <b>zabal-antxa</b> zen, abere eta zalgurdiak kabitzeko laingoa eta gazteluaren patiora zeukan sarrera zuzenki.»	(251)
<b>zabalekikoa</b> 'zabalduna, zabalekoa'	«Jaun Estibarizek upulurda berde-ilun bat zeraman soinean mauka <b>zabalekikoa</b> eta txapela hagaldun bat luma batez gailendurik.»	(32)
<b>zain</b> 'erroa, sustraia, susterra'	«...Ahaide Nagusien adiskiderik minenak ziren eta euren bihotzetan inon ez bezala egin zituzten <b>zainak</b> .»	(60)
<b>zain-zain jarri</b> 'zelatan bezala'	«...berebiziko zartakoa hartu zuen Butroetarren azpi joko honekin eta (...) <b>zain-zain jarri</b> zen...»	(64)
<b>zainbizi</b> 'urduria'	«...adatsa sobera urdintzen hasia, beharbada, urte aldiak baino gehiago bere izakera <b>zainbizi</b> eta sukorrak eraginda.»	(183)
<b>zamari</b> 'zama eramalea'	«Hurrengo goizean goiz atera ziren (...) beren ezkutari, morroi eta <b>zamariez</b> lagunduta...»	(48)
<b>zapelaitz</b> 'gabiraua'	«...hots, mendekua, dorreetxetako <b>zapelaitz</b> haien ohorezko legerik gailenena baitzen.»	(81)
<b>zaputz egin</b> 'kasurik ez egin'	«...urduri eta kezkatu jartzen ziren, nagusien dei ekintsuei <b>zaputz eginik</b> , ostera bideari lot zekizkien.»	(33)
<b>zarrastagarri</b> 'urragarria, txikiziozkoa'	«...laster, oso laster, Arrasate guztia sute bihurtuko duk, Doniane bezperako suterik <b>zarrastagarriena</b> ...»	(294)
<b>zarri</b> 'otzare gisakoa'	«...zamari edo zaldi isatsetara lotu eta espartuzko <b>zarrietan</b> ipinirik, arrastaka eramanak izan daitezela...»	(357)
<b>zartako</b> 'kolpea'	«Jaun Peru Abendañokok berebiziko <b>zartakoa</b> hartu zuen Butroetarren azpi joko honekin...»	(64)
<b>zauli</b> 'flexiblea'	«—Dirudienez, Olasokoari ezpalik <b>zauliena</b> eta leunena deritzozu.»	(87)
<b>zemaikor</b> 'mehatxuzkoa'	«...haren azkeneko hitzak zorrotzak ez ezik <b>zemaikorrak</b> izan baziren ere, ez zuen zalantzarik (...) egin zion belzkeriaz.»	(220)
<b>zer</b> 'gauza (definitu gabeko edozer)'	«Ez zen, noski, ahuntzaren gauerdiko eztula jauregitar dama goitarrok edozein txangorako behar zituzten <b>zer</b> guztiak antolatzea.»	(151)



<b>zinkide</b> 'konjuratua'	«...Jaun Bikendi Arexolakok zelatu zuen bere zaldia eta Lekutioko bideari ekin zion <b>zinkide</b> guztien aitzindari.»	(181)
<b>zizailu</b> 'zitzailua, besaulkia'	«...Andre Elbira <b>zizailu</b> batean eseria zegoen...»	(96)
<b>ziztatu</b> 'sastatu'	«...zenbat giza-bihotz ez ote dituk heuk zauritu (...) hire gorrotozko pozoia giza-bihotz horietan <b>ziztatuz</b> , zorigaitza (...) ereinaz?»	(55)
<b>zoronga</b> 'emakumezkoen ile zapia'	«Adatsa bere soinekoarekin txit ederki zetorren <b>zoronga</b> batean bildurik zeukan, (...) aurpegiaren ederra nabarmenagotuz.»	(109)
<b>zuntzunkeria</b> 'papaukeria, lelokeria'	«Emakumeak eta fraideak janaritzen dituk horrelako <b>zuntzunkeriez</b> .»	(128)
<b>zurabula</b> 'galtza'	«...bere <b>zurabula</b> gorriak bota luze batzuen barrualdean kukutzen ziren.»	(30)
<b>zurikeria</b> 'faltsukeria'	«...grina klase guztiak (...), baina harrokeriaren seme direnak bereziki —nagusikeria, ankerkeria, <b>zurikeria</b> ...»	(60)
<b>zurrian</b> 'itxuran, gisan, bezala'	«...baratzeko pikupe batean gorde ziren bakartasun <b>zurrian</b> eta begiratu desegokiei itzul egiteko.»	(154)
<b>zuzi</b> 'tortxa'	«... <b>zuzi</b> irazekiek —guztiz ere erranbelen eraginez jaurtikiak—, (...) leihoetan sartuz bete ohi zuten beren egitekoa.»	(302)